



www.begiko.com

© 2018, LEIRE BILBAO

© 2018, ALEX F

© Argitalpen hau:

2018, Santillana Infantil y Juvenil, S. L. eta Zubia Editoriala, S. L.

Legizamon poligonoa

Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk.

48450 Etxebarri

Tel.: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-50-6

Lege-gordailua: M-1286-2018

Printed in Spain - Espainian inprimatua

Lehen argitalpena: 2018ko urtarrila

Sailaren zuzendaritza:

Joseba Santxo eta Maite Malagon

Edizioa:

Ainhoa Basterretxea eta Yolanda Caja

Errealizazioa:

Miren Pellejero

Zuzenketa:

Ane Barrenengoa

Arte-zuzendaritza:

José Crespo eta Rosa Marín

Proiektu grafikoa:

Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega eta Álvaro Recuenco

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea, haren jabetza intelektuala dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Leiho bat eta leiho bi

Leire Bilbao

Irudiak: Alex F

begiko

1

Amak esaten dit begietan leihoak ditugula. Leiho ugari. Forma eta tamaina ezberdinetakoak. Baina sarritan ahaztu egiten garela leihook zabaltzeaz. Goizero etxea egurasteko ireki behar den bezala zabaldu behar ditugula geure begietako leihoak.

7

Amak esaten dit parez pare zabaltzeaz oroitzen garen arren, pertsiana igotzeaz ere oroitu behar dugula. Bestela ez dugula aurrean dugun erdiaren erdia ere ikusten.

Amak esaten dit bereziak direla begietako leihoak. Karratuak, biribilak, egu-

rrezkoak, kristal ilunekoak... Lotarakoan ere komeni dela baten bat zabalik uztea. Ametsei bidaiatzen uzteko. Hala ere, badi-rela egunak nahitaez denak erabat zarratu behar direnak. Kanpoan gertatzen denari begiratzeari utzi eta barrura begira jarri beharrekoak. Barruko leihoak deitzen die horiei.

Barruko leihoak ere zabalik utzi behar omen dira, amak dioenez, ez kanpokoak bakarrik.

Nik maite ditut leihoak. Baita leihoe-tara begira dauden begiak ere.



- 10 Gorengo pisuko neskatoak, 5. A-koak, lotsakorra dirudi. Lepoa beherantz eta eskuinerantz okertuta duela ibiltzeko ohitura dauka. Horregatik dirudi lotsakorra, begirada beheregi edo goregi zuzentzen duelako. Baina nik badakit ezetz. Biolina jotzen ikusten baitut. Eta biolina jotzen duenean kameleoi bat dirudi. Kameleoi arin eta bizkor bat. Eta dantzan egiten du, eskuekin eta buruarekin dantza. Agian, egunen batean interneten edo aldizkariren batean ikusiko dut bere argazkia.

Ondoko pisuan bizi den gizonak, 5. B-koak, bere kolkoan sartuta bizi dela dirudi. Bere besaulki handian eserita ematen ditu arratsaldeak. Hitz gurutzatuak eta sudokuak egiten pasatzen ditu orduak eta orduak, betaurrekoak sudur puntan jarrita. Eta bere sudurreko txirristatik behera erortzen zaizkionean, ttak, keinu batekin igotzen ditu.

11

Leioa apur bat zabalik izaten du beti, baita neguan ere. Nik uste, ondoko neskatoa entzuteko izaten duela leioa zabalik. Lepoa eta eskuak mugitzen harapatu izan baitut behin baino gehiagotan. Agian, herriko bandako zuzendaria izango zen sasoi batean, nork daki.

Laugarren pisuan bizi den emakumea arropa jasotzen eta zintzilikatzen ikusten dut sarri. Une honetan praka eta ka-

miseta txikiak eskegitzen aritzen da. Bi ume txiki ditu. Berdin jantzita joaten dira beti, nahiz eta nik dakidala ez diren bikiak. Emakumea beti dabil presaka eta arineketan. Kirioak dantzan. Eta pintzen saskitxoak behin baino gehiagotan erori izan zaio lurrera. Halakoetan, oihu eta intziri txikiek egiten diote ihes.

Haren ondoko amonaxoa, 4. B-koa, askotan agertzen da leiho ondora. Loreontziz betea dauka leiho-ertza. Geranio gorritz. Ura botatzen die, kontuak kontatu bitartean.

Ni ere arropa jasotzera etorri naiz. Banan-banan kentzen ditut pintzak. Kontuz eta tentuz, zorura erori ez daitezten. Hau da amak betetzeko eskatzen didan etxeako arduretako bat. Eta hasieran purrustaka egiten nuen arren, orain atsegin dut. Gauza asko ikusten dira barruko patiora begiratzen duen leihotik.



14 Haizea dabil, firin-faran, haize zoroa. Arropa eta izarak dantzan dabiltza. Ea ondo lotzen ditudan galtzetinak sokan, ea ez zaizkidan lurrera erortzen, amaren bularretako edo nire kuleroekin batera. Behin baino gehiagotan erori izan zaizkit galtzetinak lurrera. Baita amaren bularretakoak eta nire kuleroak ere. Kontu handiz jaso beharko dut arropa, haize honekin behera erori ez dadin.

«Eta zu nor zara?», galdetu dit orduan. Laugarren pisura begiratu dut, hirugarrenera, bigarrenera... eta ez dut inor iku-



si. Lepoa luzatu dut patiora begiratzeko, alderik alde goitik eta behera miatu dut dena. Inor ez, ordea.

—Kuxkuxean ari zinen, ezta?

16 Han neukan bera, aurrez aurre, eza-gunak egiten zitzaizkidan kamiseta eta prakak soinean zituela. Nire kamiseta eta prakak ziren!

—Ez nintzen kuxkuxeatzen ari. Amak arropa jasotzera bidali nau eta horretan ari nintzen besterik gabe. Eta aizu, zer egiten ari zara nire arropa jantzita?

—Ni nahi dudana janzten naiz.

—Ados, Maialen dut izena eta hirugarren pisuan bizi naiz, nire amarekin.

—Ni Haizea naiz.